steilas informia 11

steilasen informazio elektronikoa 2022ko maiatzaren 31an

# GIZARTE EKIMENEKO IKASTETXEETAKO HITZARMENA. NEGOZIAZIO MAHAIAREN LEHEN URRATSAK

**Atzo, maiatzak 30, EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako Lan Hitzarmenaren hirugarren negoziazio-mahaia egin zen. Bilera horretan, sindikatuok gure aldarrikapen-plataformak aurkeztu genituen, eta, azkenik, sektorerako hitzarmen berri bat negoziatzeari ekin genion. Patronalek, proposamenak entzun ondoren, aztertu egingo dituztela erantzun zuten.**

**STEILASek argi utzi zuen lehentasuna emango diola kolektibo prekarizatuenen eta feminizatuenen lan-baldintzak hobetzeari, hau da, Haur Hezkuntzako 1. zikloko langileei eta hezkuntza-laguntzako espezialistei. Era berean, negoziazio-prozesuan gure lehentasunezko helburuak honako hauek izango dira: lanbide-heziketa arautzea, asteko eskola-orduen kopurua murriztea eta erosteko ahalmena berreskuratzea.**

**Hurrengo negoziazio-mahaia ekainaren 21ean izango da. STEILAS bilera hori aurreratzen saiatu zen, negoziazioa gehiegi atzeratu dela uste dugulako, baina patronalen eta gainerako sindikatuen isiltasuna ikusita, azkenean onartu genuen data hori. Landu beharreko gaiak indarrean dagoen hitzarmenetik zintzilik zeudenak izango dira: 2021erako soldata-igoerak, hitzarmenean Lanbide Heziketaren lanaldia arautzea eta birkokapen araudia hitzarmenean txertatzea. Jakinaren gainean izango zaituztegu.**

# CONVENIO DE CENTROS DE INICIATIVA SOCIAL. PRIMEROS PASOS DE LA MESA DE NEGOCIACIÓN

**Ayer, 30 de mayo, tuvo lugar la tercera mesa de negociación del Convenio de Centros de Iniciativa Social de la CAPV. En esta reunión los sindicatos presentamos nuestras plataformas reivindicativas y se dio comienzo por fin a la negociación de un nuevo convenio para el sector. Las Patronales después de escuchar las propuestas, contestaron que las analizarían.**

**STEILAS dejó claro que priorizará la mejora de las condiciones laborales de los colectivos más precarizados y feminizados, es decir, el personal del 1º ciclo de Educación Infantil y las EAE. Al mismo tiempo, nuestros objetivos prioritarios en el proceso de negociación serán: regular la formación profesional, reducir el número de horas lectivas semanales y recuperar el poder adquisitivo.**

**La próxima mesa de negociación será el 21 de junio. STEILAS intentó adelantar esa reunión porque consideramos que la negociación ya se ha retrasado demasiado, pero ante el silencio de las patronales y del resto de los sindicatos aceptamos finalmente esa fecha. Los temas a tratar serán los que estaban pendientes del convenio vigente: subidas salariales para el 2021, regular en el convenio la jornada de la Formación Profesional y la adaptación del convenio al reglamento de recolocación. Os mantendremos informados e informadas.**

**STEILAS, LANGILEON AHOTSA**

www.steilas.eus

Araba 945 14 11 04 araba@steilas.eus | Bizkaia 944 10 02 98 bizkaia@steilas.eus | Gipuzkoa 943 46 60 00 gipuzkoa@steilas.eus | Nafarroa 948 21 23 55 nafarroa@steilas.eus